

TXISTULARI TRADIZIOA.

Ereintza Elkarteko Txistulariak

Zorionez Erretereriak aintzinatik izan du Txistulari tradizio sendoa, gure herriak nabari izan du beti txistulariaren beharra eta behar hau betetzeko izan eta sortu dira gure herrian txistulari bikainak.

Nork imajina dezake gure herria Txistu hotsik gabe?

Txistulariek adierazten digute gaur San Juan bezpera dela, Madalenak hasi direla, lhauterietan gaudela, edo eta Gabonak ospatzen ari garela. Aintzinako legez, herrian jai edo egun berezia denean han egon behar du txistulariak, bere doinuaren bitartez egunaren garrantzia azpimarratzeko. Honetarakoditu txistulariak egun edo egoera konkretu bakoitzarentzat doinu bereziak, zeinaz ospatzen denaren berri ematen baitute herri-tarrok jakin dezagun.

Txistulariak herrian duen garrantziaren adierazgarri nabarmena da Erretereriako Udal Ordenantzek aintzinatik behartu izan dutela herriko txistularia egun berezietan herri-rik ez hurruntzea edo txistulari lehenak ikasle bat izan dezala. Honen truke ezer berezirik jaso gabe, bera falta den hunean herria txistulari gabe gera ez dedin. Gaur egundaino iritsi zaizkigun betebeharrak.

Gure herriko Txistulari edo Danboliteroen Tradizioaren testigu diren dokumentuak Erdi-Arotik datozkigu mendez mendez. (XVI. mendeko Erretereriako dokumentuetan danboliteroak agertzen badira, mende honen aurreragotik ere badaude erreferentziak herriko gertakizun garrantzitsuetan parte hartzen zuten musikagileei buruz).

Gaur egun, guk gertuen nabari dugun erreferentzia, urteetan hurrun baina gure izakeran nabarmenena, dudarik gabe, 1936-39. urtetako Guda aurreko Erretereriako Udal Txistularien Banda dugu. Banda honetako partaide batzuk adiskide eta irakasle bikain izateko fortuna izan bait genduen gutako batzuk. Zorigaitzoko Guda hark gure Herriko Txistulari mogimenduan ekarri zuen bai haustura nabarmena. Guda aurretik eta Guda ondoren gizarteak sufritu zuen galera nabarmena ere somatu baitzuten gure txistulariak.

Guda ondorengo urte luzetan zehar gure herrian herritar ugari bildu izan da txistuaren inguruan lanean Txistua berrindartu nahirik. Helburu hori lortzeko, lehenengo premisa izanik txistulari gazteekin lanean hastea. Herritar horien artean, Martin Rodriguez Miranda, txistuaren alde lan handia egindako gizonak txistulari talde gazte bat prestatu zuen 1948. urtean "Los Luises" egoitzan. Txistulari gazteak sortzeko beharra argia zen geroa zihurtatu nahi bazen. Banda honek hamar urte bete zituen lanean.

Ereintza Elkartea sortu zenean 1958. urtean, bertako kideek herriaren behar kulturalen artean Txistulari Tradizioa sendotu beharra zeukatela somatu zuten. Honela Ereintzako Bazkide batzuk Donostiako Udal Kontserbatorio Nagusira joan ziren Isidro Ansorena txistulari ospetsuarekin txistu ikasketak buru-

tzera. Ondoren Periko Lizardi Erretereriako Udal Txistu Lehenaren laguntzaz Ereintzako lehen Txistulari Banda sortu zen 1963. urtean.

1964. urtean Ereintzak Euskal Dantza eta Txistu Akademia sortu zuen Izagirre-tar Olegario eta Joxe Miguelen eskutik. Hemezortzi urte luzez Ereintzako Akademitik pasa ziren gaur egun Euskal Kultura, Musika eta Dantza inguruan oraindik lanean dabiltzan hainbat herriko seme-alaba.

Urte hauetan gure herrian irakaskuntza musikala nagusiki Ereintzako Akademia honetan eta Asociacion de Cultura Musical Renteriana-ren Akademiaren finkatua zegoen, beste Akademia partikular batzuk aparte.

Ereintzak Txistua berrindartzeko egin zuen lan bikain hau instalakuntza eta bitarteko exkaxekin bete behar izan zuen, garai haietako partaideen meritua areagotuz.

Matrikula sinbolikoa zen, denok ordaindu ahal izateko ainala, eta irakasleak (Txistulari Bandako partaideak eta musika zekiten zenbait Bazkide) bere lana muxutruk egiten zuten herrian leku desberdinetan honetarako prestatu ziren hainbat lokaletan: hezetan handiko lokalak, egoera kaxkarrakin...

Lan honen emaitza, aldiz, ez zetorren bat hain "amateur"-a zen Akademia batekin: 18 urtetan zehar, 6 Txistulari Banda egonkor osatu ziren, beste inguruko herritan bere lana egin



Ereintza Elkarteko Txistulariak 1967/68. urtean. Jesus Mari Oliveri txistu 1go, Joxe Miguel Izagirre txistu 2., Olegario Izagirre silbotea eta Ramon Izagirre atabala.

zuten txistulariez gain, eta hainbat ekintza berri eta zahar indartu ziren: dantzari-ekin saioak, kontzertuak, lehiaketak...

1978. urtean Donostiako Udal Musika Kontserbatorio Nagusiak Gipuzkoako zenbait herritan "Centros No Oficiales Reconocidos" zeritzatenak martxan jartzea proposatu zuenean, Ereintzak Erretererian Kontserbatorio bat sortzeko aukera ederra ikusi zuen eta ilusio handiz hartu zuen proiektua. Ereintzatarren asmoan zegoen Erretererian Txistua eta beste

Euskal Musika-tresnak Kontserbatorio batetan beste instrumentuekin batera egoera berdinean jartzea. Lortuz gero, garai haietan lan erreza ez zena, Txistua eta beste Musika-tresnen geroa sendotuko zela gure herrian.

Proiektu honek Ereintzan barne zegoen ekintza garrantzitsu bat galtzea esan nahi zuen. Baina txistuaren irakaskuntzaren hobekuntza helburua zenez, Asociacion de Cultura Musical Renteriana-rekin batera "Grupo Promotor Erretereria Musikal"-aren sorrera bultzatzen da indar guztiz.

Hasiera batean, Ereintzako bi partaide sartzen dira delako taldean mugarik gabe. Talde hau arduratuko da Erretereria Musikaleko oinarriak jartzen eta Udaletxeari Proiektuaren onura sinestarazten.

Talde honen lana benetan ona izan zen, Erretereria Musikal eta Arrasate Musikal izan baitziren Gipuzkoako lehen izendatutako "Centro Oficial No Reconocido" direlakoak. Beraien laguntza eskatu zutelarik geroago Irunetik, Zumarragatik...

Aipamen berezia merezi du Talde honetan Olegario Izagirreraren lana, Proiektuaren benetazko eragilea Josetxo Oliveriren laguntzarekin.

1980. urtean, errekonozimendu ofiziala lortzen denean, Erretereria Musikalek 6 irakasle profesional ditu. Horietatik bat Txistu irakaslea izanik. Momentu honetan, Ereintzak bere Akademia Erretereria Musikalen barne integratzen du. Gainera, Ereintzako lokalen erabilera baimenduz Erretereria Musikalak erabil ditzan, Niessen-eko lokalak egokitu bitarte. Honek ekarzen dion infrastruktura problemak bereak eginez.

Hau gertatzen den bitartean, Ereintzako Txistulari Taldeak lanean dihardu, Erretereriak dituen Txistu eskasiak bete nahirik, Euskal Herriko Txistulari Elkartearen inguruan lanean, gure herriko ordezkari bihurtuz hainbat Lehiaketa, Kontzertu eta abarretan.

1985. urtean Ereintzako Txistulariek, Jose Inazio Ansorena Donostiako Udal Kontserbatorio Nagusiko Txistu Katedradunak eta Ereintzako Txistu arduradunak bultzatuta, Erretereriako Udalarik proposatzen diote Udal Txistulariei dagozkien, eta garai haietan egiten ez ziren hainbat betebeharrak berriz martxan jartzea. Honela 8 txistulariz osaturiko Banda gazte batek hartuko du bere gain, beste hainbat betebeharren artean, hilabeteko Udaletxeko Arkupetan Txistu Saioa egiteko konpromezua.

Txistulari talde honetako kideak, gazteak denak, Elkarteko esperientzia gehiagoko txistularien laguntzaz, txistuaren gaurkotutasun mogimenduetara bidea ereki zuten, txistuaren sustaeraiak mantenduz. Aldi berean txistulari iharduera berrindartu delarik. Iharduera luze honetan eragin zuzen eta nabarmena izan du beti Donostiako Udal Txistularien Taldeak, bertako partaideen zuzendaritza, laguntza eta adiskidantza nabaria izan delarik gure herriko txistulari gazteen bilakaeran. Honela azken hamabost-hogei urte bitartean gure herrian ere, nabari izan da txistu inguruan eman den garapena. Gaur egun normalizat josten baditugu, ere zenbait berrikuntza nabari dira:

- Fa eta Sol Soileko txistuak erabiltzen dira, tradizional den Fa Sostenedoko txistua mantenduz. Honek txistulariari beste edozein instrumentuekin batera errazago eta afinatuago jotzeko beta ematen diolarik. Honela hainbat saiotan eskusoi-nuak, tronpetak, piano, bibolin, kitarra, xilofoiak eta abar erabili ahal izan ditugu txistuarekin batera.

-Atabala eta Danboliña erabiltzeaz gain, beste perkusiozko instrumentuak erabiltzen dira normalean: bonbetea, panderetak, kastañuelak, kaja, tinbaletak, platoak, xilofoiak, marinba... Hain zuzen ere, Ereintzako Txistulariak izan dira Erretereria Musikalean Perkusioa ere beste instrumentuen ondoan maila berdinean jartzeko bultzatzaile nagusienetakoak, Perkusioari eman behar zitzaion garrantzia eta posibilitate ugariak azpimarratuz.



Ereintzako Txistulariak 1976. urtean. Josetxo Oliveri txistu 1goa, Iñaki Koka txistu 2., Jon Bagües silbetea, Santi Urruzola atabala.

-Txistuak berezko dituen doinuak landuz gainera, beste herri eta kultura desberdinetako doinuak jotzea posible dela ikusi ahal izan dugu. Baita ere bertako doinuak beste moduan jo eta bizitzeko aukerak eman ere. Honela, txistuari lantzeko bide zabala ereki zaiolarik.

-Eta agian garrantzizkoena, Txistua zahar eta gazteen gus-toko izan daitekeen instrumentua dela frogatu dugu. Txistua bizirik dago, herritarrok badugu zaletasuna eta Txistua gure gizarte ospakizunetan gogoko dugu. Honen adierazgarri da, gazte taldeak baditugula, geroa zihurtatzeko.

Lan guzti honen ondorio bezala, gaur egun, gure herrian formazio ederreko 12 lagunez osaturiko Txistulari Taldea gaztea dugu, hiru Banda arrunt osatuko luketen ahots bakoitzeko 3 lagunekoko Taldea:

-3 Txistu Lehen: Ixiar Busselo, Esther Salsamendi, eta Xabier Vesga.

-3 Txistu Bigarren: Leire Otaegi, Ainhoa Martinez eta Harkaitz Altuna

-3 Silbote: Pello Ibarguren, Yosu Izagirre eta Mikel Lersundi.

-3 Perkusiolari: Harkaitz Izagirre, Igor Astarbe eta Joxe Usabiaga.

Talde hau beharren arabera beste zenbait instrumentista batzuk borobiltzen da (Tron-petak, Pianistak...).

Txistulari Talde hau gure herriko Txistulari Tradizioaren fruitu izan da dudarik gabe: Lizaso, Lizardi, Errazkin, Goñi, Rodriguez Miranda, Izagiritarrak, Oliveritarrak eta hainbat lagunek ereinitako hazien fruitu.

Guzti hau honela izanik, Ereintza Elkarteko Txistulariak izan dira urtetan gure herrian txistulari munduan erreferentzi nagusia. Euskal Herriko Txistulari Elkartearekin harreman zuzena mantenduz, Ereintza-ko Txistularien traiektoria, in-frastruktura eta kide talde za-balarekin Txistuak izan behar duen tokia eta garrantzia mantendu eta indartu delarik.

Gaur egun ere, Ereintzako Txistulari Taldearen helburu nagusia, Erreterriako Udalak behar dituen Txistu behar guz-tiei erantzuten jarraitzea da.

Gure irakasle izandako txistulariek erakutsitako bidea jarraituz, gure herrian txistuaren oraina sendotzea eta geroa zihurtatzea dugu helburu.

Txistulari Taldeak gure herrian txistulari zahar eta gazteei bidea erakutsi eta zabaltzen die, oraindano egin izan dugun moduan, honetarako Ereintza Elkartea, Erreterriako Udala, Erreterria Musikal, Udal Dantza Eskola eta herriko beste hainbat Elkarte eta lagunekin harreman hestua izaten jarraituko dugularik.

Azkenik aipatu behar dugu gaur egun Txistuak Erreterrian duen osasuna, urte luzeetan lanean gogor jardun diren hainbat herritar eta lagunei esker izan dela. Beraiek Txistuarekiko, eta orohar Euskal Kulturarekiko egindako lanaren fruitu da gaur egungo egoera. Millesker egin duzen lan luze, gogor eta politari. Millesker Olegari Izagirre, Joxe Miguel Izagirre, Evaristo Goñi, Periko Lizardi, Martin Rodriguez Miranda, Jose Inazio Ansorena, Josetxo Oliveri eta abar luze bati. Zuen lan finaren ondorengo jarraitzaile fin eta lehiak izan nahi duten



Ereintzako Txistulariak 1996. urtean.

Momentu honetan, Erreterria Musikalek ederki betetzen du Txistulari eta Perkusionistak hazitzeko lana. Bertatik ateratzen dira ondo formaturiko ikasleak, gerora nahi ezker Donostian beraien ikasketak osatuko dituztenak.

Ikasketa horien ondoren, inportanteena ikasitako hori kale-an lantzea da. Bertan ikasten bait da eskola batek eman ez dezakeen praktikasuna eguneroko bizitzan. Honela txistulari eta perkusiolari gazteak, nahi ezker, Ereintza Elkarteko Banda desberdinetan parte hartuz lortzen dute gustatzen zaien bidea jorratzea; hainbat lankideen eskutik esperientziak bakarrik eman dezakeen guztia ikasiz. Alde horretatik ere, Conjunto Instrumental-eko asignatura Ereintzatarren ardurapean betetzen dute Erreterria Musikaleko ikasleek, Erreterria Udal Dantza Eskolan.

Bestalde, herriko Musika eta Kultur Elkarte desberdinen arteko adiskide eta lankidetzak gaur egun posibilitate ugariak ekarri ditu, maila eta elkarlan polita erakutsiz.